



ZESTOAKO UDALA

AKTA

2020ko abenduaren 29an Udal Batzarrak buruturiko ezohiko saioari dagokiona.

Zestoan, bi mila eta hogeiko abenduaren hogeita bederatzian, arratsaldeko zortzietan, **Mikel Arregi Urrutia** jauna Mahaiburu delarik, korporakide hauek bildu dira: **Ruben Alberdi Uranga, Beatriz Zubia Arambarri, Aitor Salegi Martija eta Pilar Perurena Larrañaga**, EH BILDU Udal taldeko zinegotziak eta **Garikoitz Mendizabal Etxeberria, Eva Mangas Beobide, Katixa Monreal Cuesta eta Javier Manteca Martin** EAJ-PNV Udal taldeko zinegotziak. Ezin etorria adierazi dute **Nerea Odriozola Larrañaga** eta **Karmel Bedita Mendizabal Irigoienek**.

Idazkari lanetan, Korporazioan jarduten duena, **Ander Cestona Unanue** jauna.

Alkateak ongi etorria eman ondoren gai zerrendari ekin dio

1.- 2020KO AZAROAREN 26AN BURUTUTAKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BALITZ.-

Ez da aldaketarako inongo proposamenik aurkeztu, beraz, 2020ko azaroaren 26an buruturiko saioaren akta bere horretan onartu da AHO BATEZ.

2.- 2021KO AURREKONTUA, PLANTILA ORGANIKOA, LANPOSTUEN ZERRENDA, AURREKONTUA GAUZATZEKO ARAUA ETA BARNE KONTROLEKO ARAUDIA.-

Alkateak adierazi du, 2021eko aurrekontuarekin batera, plantila organikoa, lanpostuen zerrenda, aurrekontua gauzatzeko araua eta barne kontroleko araudia jasotzen direla, nahiz eta garrantzitsuen aurrekontua izan.

2021erako gainerako inbertsioak aipatu ditu:

- Kiroldegiko argizuloak kentzea.
- Auzoetako hiri-lanak gauzatzea.
- Aisiaguneak, Arroabeen Sakulupe parkea eta herrian Zubiaurren egin daitekeena gauzak ondo aztertu ondoren. Hau Aranzadirekin adostu beharko litzatekeela azpimarratu du.

Azalpen hauen ondoren, Udal Batzarrak, Ogasun eta Kontuen Batzordeko irizpidea aztertu ondoren eta korporazioa osatzen duten hamaika zinegotzietatik bertaratutako bederatziren aho bateko aldeko adostasunarekin, ondorengo erabakiak hartu ditu:

LEHENA.- 2021eko ekitaldirako Udal Aurrekontu proiektua onartzea, plantila organikoa, lanpostuen zerrenda, aurrekontua gauzatzeko araua eta barne kontroleko araudia. Horren sarreren eta gastuen egoera, atalez atal egindako laburpen honetan azaldutakoaren arabera finkatuz:



ZESTOAKO UDALA

2021ko ZESTOAKO UDALEKO BEREZKO AURREKONTUA

SARRERAK	IZENDAPENA	HASIERAKOA
		2021/01/01
Kapitulua	A) Eragiketa Arruntak	5.540.423,25
1	Zuzeneko zergak	1.189.000,00
2	Zeharkako zergak	146.824,25
3	Tasak eta bestelako sarrerak	1.276.595,00
4	Transferentzia arruntak	2.928.004,00
5	Ondare sarrerak	0,00
	B) Kapital eragiketak	51.001,00
6	Inbertsio errealen besterenganatzea	1,00
7	Kapital transferentziak	51.000,00
8	Finantz aktiboen aldaketa	0,00
9	Finantz pasiboen aldaketa	0,00
	GUZTIRA	5.591.424,25

GASTUAK	IZENDAPENA	HASIERAKOA
		2021/01/01
Kapitulua	A) Eragiketa Arruntak	4.776.424,25
1	Pertsonal gastuak	1.906.001,00
2	Zerbitzu eta ondasun arruntan erostk.	1.491.043,10
3	Finantz pasiboen interesak	3.777,10
4	Transferentzia arruntak	1.375.603,05
	B) Kapital eragiketak	815.000,00
6	Inbertsio errealak	651.000,00
7	Kapital transferentziak	119.000,00
8	Finantz aktiboen aldaketa	0,00
9	Finantz pasiboen aldaketa	45.000,00
	GUZTIRA	5.591.424,25

BIGARRENA.- Aipaturiko Aurrekontua jendaurreko erakusketan jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratu eta hamabost lanegunetako epean aztertu eta egoki jotzen diren zuzenketa eskaerak aurkeztu ahal daitezten. Aipaturiko epean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin-behineko akordioa behin betikotzat hartua izango da erabaki berrien premiarik gabe.

3.-EH BILDUK ZESTOAKO UDALEAN EUSKO JAURLARITZARI UDALENTZAKO EZ OHIKO FUNTS BEREZI GEHIGARRIA ESKATZEKO MOZIOA.-

Aitor Salegi zinegotziak irakurri du mozioa eta honela dio:



ZESTOAKO UDALA

“COVID19aren pandemiak sortutako krisiak gogor eragin du udalen egunerokotasunean, eta batez ere, udalek 2020rako eginiko aurreikuspenetan. Udalek beraien aurreikuspenak alde batera utzi eta beste lehentasun eta beharrezan batzuei egin behar izan diete aurre: herritarren osasun segurtasuna bermatzeko neurriak hartzea, garbitasunean zerbitzu gehigarriak ezartzea, gizarte politiken arloan sortutako beharrezan berriei erantzutea, herrietako komertzio eta zerbitzuei laguntzea,... Alarma egoeraren ondorioz udal zerbitzu asko bertan behera uzteak ere galera ekonomikoak eragin ditu udaletan.

Inbertsioak berrantolatzeaz gain, udalek diru sarreretan ere aldaketak jasango dituzte: batetik, tasa eta prezio publikoen bitartez lortzea aurreikusten zituzten sarrerak murriztuko dira; eta bestetik, foru finantza funtsaren bidez jaso beharko luketen diru kopurua ere asko murriztuko da.

COVID19aren krisiak behar berriak sortu ditu, eta erakunde publikoak horiei erantzutera behartuta daude. Udalak herritarrengandik gertuen dauden erakundeak izanik, momentu honetan beraien gaitasun ekonomikoa bermatzea oso garrantzitsua da.

Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzari udalentsako ez-ohiko funtsa berezia sortzea dagokio, gutxienez ondorengo udal premiei erantzuteko:

1. Udal zerbitzuetan izaniko galerei aurre egiteko
2. Udal zerbitzuak eta langile postuak telelanera egokitzeko gastuei aurre egiteko
3. Herritarren larrialdi egoerei aurre egiteko
4. Arrakala informatikoa, haurren elikadura zein udal eskumenekoak ez diren beste gai batzuetan udalek egindako inbertsioengatik sortutako gastuak ordaintzeko
5. Hezkuntza eta osasun arloan udalei sortuko zaizkien beharrezan berriei aurre egiteko (adibidez eraikinak egokitzea eta garbitasun neurrien zorrozteak dakartzan kostu gehigarriak)

Bestetik, Europar Batasunak ere funts bereziak iragarri ditu datozen urteetan izango ditugun erronkei aurre egiteko eta COVID19aren izurriteak areagotutako krisi ekonomiko eta sozialaren ondorioak berreraikitzeke. Erronka horiei tokikotasunetik ere egin beharko zaie aurre, eta horretarako ezinbestekoa da udaletara funts horiek heltzea eta udalek (aniztasun osoa kontuan izanik dagokion ordezkartzaren bidez) funts horien lanketan zuzenean parte hartzea, Nafarroako Gobernuak ahalbideratu duen bezala.

Zestoako udalbatzak ondokoa ebatzen du:

1. EUSKO JAURLARITZARI EAEko udalentsako ez -ohiko diru funts berezi bat sortzea eskatzen dio, udalek COVID19aren krisiaren ondorioz jasan behar dituzten gastu hauei aurre egiteko:

1. Udal zerbitzuetan izaniko galerei aurre egiteko
2. Udalek zerbitzuak eta langile postuak telelanera egokitzeko gastuei aurre egiteko
3. Herritarren larrialdi egoerei aurre egiteko
4. Arrakala informatikoa, haurren elikadura zein udal eskumenekoak ez diren beste gai batzuetan udalek egindako inbertsioengatik sortutako gastuak ordaintzeko



ZESTOAKO UDALA

5. *Hezkuntza eta osasun arloan udalei sortuko zaizkien beharrizan berriei aurre egiteko (adibidez eraikinak egokitzea eta garbitasun neurrien zorrozteak dakartzan kostu gehigarriak)*
2. *Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu, Europatik datozen funtsen %30 udaletara bideratua izan dadin bermatu dezala.*
3. *Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu, Europatik datozen funtsen banaketa zein lanketa garatuko den guneetan EAEko Udalen aniztasun osoa ordezkaturia izango den ordezkari bidez parte hartze zuzena bermatu dezala.*
4. *Ebazpen hau Eusko Jaurlaritzari jakinaraziko zaio.*

Zestoan, 2020ko abenduaren 24an

Udal Batzarrak, korporazioa osatzen duten hamaika zinegotzietatik bertaratutako bederatzitik bosten aldeko botoarekin eta lauren kontrako botoarekin, mozioa onartu du.

4.- ERREGU ETA GALDERAK

Javier Mantekak hartu du hitza eta herriko sarrera irteeren gaiari buruz adierazi du, inguruko errepidetan siniestrabilitate handia dagoela dio, beste eremu batzuetan baino. Neurriak hartu beharko liritekeela iradoki du.

Alkateak erantzun dio, herriko sarera irteerei buruzko ekimena dela eta kontuan hartu behar dela bi heriotza gertatu direla azken urteetan.

Azkenik alkateak bertaratutako denei urte berri on opa die.

Eta gai gehiago ez dagoenez, bukatutzat ematen da saioa arratsaldeko zortziak eta hogeita hamalau direnean, nik neuk, Idazkariak, ziurtatzen dudalarik.

O. E.
ALKATEAK,